

opusdei.org

Goimendi ikastetxeko boluntarioek Ugandan eman dute uztaila

Sorgina izango banintz
ikastolak irekiko nituzke
Afrikan, haur guztiek
hezkuntza har dezaten
dohainik, hori baita gizarte
garatzeko tresnarik hoberena

2005 Ira 1

Natalia Medikuntzako ikasle sutsua dugu. Donostiarra da eta, Iruñean ikasten duenez, ikasturtean zehar Goimendi Ikastetxe Nagusian bizi da. Ugandan eman du uztaila, umezurtzentzako ikastola batean lan egiten.

Zu iaz ere Kampalan, Ugandako hiriburua, izan zinen. Urte batetik bestera hobeto nabaritzen da zuen lanak balio izan duen ala ez. Iazko zuen lanak iraun al du?

Egia esan, bai iraun duela! Iaz oilategi bat eraiki genuen eta oraindik lanean dirauela jakiteak asko poztu gintuen. Umeek ilusioz beterik hartu gintuzten, eta gozamina izan zen oilasko jan ohi dutela entzutea. Dena dela, aurten areagotu egin dugu oilategia, eta etekin garbiagoa lortu ere bai.

Ongileek eman ziguten emariekin oilo gehiago erosi ditugu, eta bi neskato umezurtz bidali ditugu

hiriburuko abeletxe handi batera;
han hiru hilabeteko ikastaro egiten
ari dira, hemendik aurrera
abeltzaintza profesionala beraien
ogibidea izan dadin.

Iritsi zinetenean, bertako jendea zuetaz oroitzen zen?

Aurten gutako hiru berriro joan gara,
ekitaldiari jarraituz, eta ongi baino
hobeto akordatzeko ziren gurekin.
Baita iazko gainontzeko boluntarioak
zergatik ez ziren etorri galdetzen
ziguten ere; haienganako txera
handia erakusten zuten. Hango
jendea miragarria da, esker onekoa,
alaia, beti atsegina eta irribarrez
begiratzen dute.

Umeak HIESek jotako gurasoen zurtz
dira. Ikastolako komunak eraikitzen
aritu gara, ikasgelak berritzen,
arbelak margotzen, zoruak eta
paretak lautzen, eta abar. Mutil
koskorrei laguntzeko eskatu genien,
gero haiek arduradun izan daitezen;

horiekin idazmahaiak ere konpondu genituen. Aldi berean, umezurtzen etxea moldatu dugu, eta eman dizkiegu zientzi eta matematikako eskolak.

Bi aldiz joan zarete Ugandara boluntario gisa. Abenturazale amorratua zarete edo hondartza ez duzue gustukoa?

Bai gustatzen zaigula hondartzara joatea! Eta argi dago pixka bat abenturazale garela, baina toki berean ekitaldia errepikatzea ez da arriskutsua, ongi baitakizu zer aurkituko duzun han. Uda oso luzea da eta denetarako aukera dago; ikasturtean zehar ere boluntario moduan egin daiteke lan, baina udan besteei zeharo eman ahal diezu astia. Fededunek lagunkide izan behar dugu, besteei gure arreta eta denbora eskainiz, eta nori baino behartsuei?

Goimendin bizi zara. Zergatik antolatzen dituzue holako ekitaldiak Goimendin?

Goimendin boluntarioen laguntza sustatzen da urte osoan zehar.

Elkarrekin bizi gara ehun neska eta horietako asko elkarlanean ari dira UAS (Universitarios por la Ayuda Social) erakundearekin: minbiziak jotako umeak edo agureak bisitatzen, ikastolako lanak egiten laguntzen eta abar.

Udan, berriz, kanpoan antolatzen dira ekitaldiak, laguntzarako prestakuntza burutzeko. Egia esan, Ugandan kristauek Jainkoarengana eramaten zaituzte, fedea nola bizi diren konturatzen zaretenean. Gu egunero mezara joateko aukera izan genuen Munyoyo parrokian; goizeko zazpietan zen eta beti jendez josita zegoen, baita gazte jendez ere! Han mezak oso alaiak eta parte-hartzeko aproposak ziren, kantu askorekin.

Bueltatzean, alde handia dagoela nabaritzen da. Batez ere hemengo batz besteko edadea 60 urtekoa da. Ez dakit ba, lan asko dago hemen ere...

Sorgina izango bazina zer eramango zenuke hemendik hara, eta alderantziz?

Sorgina izango banintz ikastolak irekiko nituzke Afrikan, haur guztiek hezkuntza har dezaten dohainik, hori baita gizarte garatzeko tresnarik hoberena. Azken batean, ugandarrekin berek eramango dute aberria aurrera. Argia eta edateko ura ere eramango nituzke etxe guztietara. Horren truke, handik hona, ordea, jendearen alaitasuna, erritmoa eta eskuzabaltasuna ekarriko nituzke. Duten apurra ere ematen dizute; sinesgaitz da guretzat hori.

Urte honetako pasadizoren bat bururatzen zaizu?

Aurten bururatu zitzaigun
haurrentzako festa bat antolatzea
bizi ginen etxean. Uztailaren 16an
izan zen, Ama Birjinaren festan, eta
auzoaren apaizak Karmengo
eskapularioa jarri zien nahi izan
zuten umeei. Donostiako andere
batek emandako karamelu eta
puxika mordo bat erabili genituen
festan. Haurrak txoratuta zeuden,
benetan liluratuta. Bai gutxirekin
zoriontsua izan ahal direla! Asko eta
asko dira lagundu nahi dutenak,
baina nola ez dakitela; ba, edonork
lagun dezake, bakoitzak bere erara.
Emakume horrek ahal zuena eman
zuen, karameluak eta puxikak;
bazirudien ezer gutxi zela, baina hori
izan zen hurrei gehien gustatu
zitzaiena, inoiz ez baitzuten ikusi
halakorik ordura arte.

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/goimendi-
ikastetxeko-boluntarioek-ugandan-
eman-dute-uztaila/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/goimendi-ikastetxeko-boluntarioek-ugandan-eman-dute-uztaila/) (2025 Abu 8)